EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Lagun hori:

Gaur egun, EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea Euskadiko emakumeen jarduera profesionalari buruzko azterlana egiten ari da, sektore ekonomikoetako erantzukizun-postuetan emakumeek zer presentzia duten jakiteko. Azken urte hauetan gainditu diren nahiz oraindik erronka diren eragozpenak zein diren aztertu nahi da, baita emakumeek antolaketa-kulturari zer ekarpen egiten dioten eta zuzendaritzari eta buruzagitzari dagokionez zer estilo sortzen ari diren ere.

Izan ere, behin baino gehiagotan egiaztatu denez, estatus profesional eta erantzukizun-maila handia lortzen duten emakumeak gero eta gehiago diren arren, emakume horiek oraindik ez dira gizartean ikusten eta gutxi onartuta daude, eta, askotan, zaila da jakintzaren esparru batzuetan emakume adituak aurkitzea.

Horregatik, ikerlan honetan lortu nahi den ondorioetako bat profil seniorra duten emakume profesionalen kolektiboa identifikatzea da, betiere halakotzat hartuta lanbide liberaletan eta ibilbide irmoko erantzukizuneko postuetan bost urtetik gorako lan-esperientzia duten emakumeak eta/edo zuzendaritza-postu bat dutenak, emakume horiek agerian jartzeko eta behar denean, beren lanbide-esperientzia eskura eduki ahal izateko.

Horregatik, zuen laguntza eskatzen dizuegu, zuen Elkartean izena emana duten emakume profesionalekin zuzeneko harremana izateko prozedurarik egokiena ezartzeko. Datuak babesteari buruz dagoen araudia ez urratzeko asmoz, uste dugu formularik egokiena profil horretako emakumeen posta elektronikoko helbideen zerrenda bat lagatzea izango litzatekeela, edo, bestela, gaur egun zure Elkargoko kideak diren emakumeen posta elektronikoko helbideen zerrenda orokor bat lagatzea.

Eskatutako informazioa bi helbururekin erabiliko da: batetik, aipatutako kolektiboa Euskadiko emakume adituen direktorio baten zati izan dadin gonbidatzeko eta, bestetik, baimena eskatzeko direktorio hori publikoa izateko –soilik emakume horiek baimentzen dituzten datuei dagokienez, eta emakumeek horretarako baimena ematen badute.

Helburu horrekin, Emakunderen izenean pertsona bat jarriko da laster harremanetan zuekin, eta proiektuan parte hartzeko gonbidapena egingo dizue.

Mila esker zuen laguntzagatik eta espero dugu azterlana zuen interesekoa izatea, baita zuzenduta dagoen kolektiboarentzat ere interesgarria izatea. Jaso ezazue agur bero bat.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 3a.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

María SILVESTRE CABRERA
ZUZENDARIA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
IRTEERA
Zka 1141
Eguna 10-11-3

Manuel Iradier, 36 Tel. 945 016 702/3 – Fax 945 016 720 – E-mail: emakunde@ej-gv.es – 01005 Vitoria-Gasteiz

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Estimadas señoras y señores:

Actualmente EMAKUNDE, Instituto Vasco de la Mujer, está realizando un estudio sobre la Trayectoria profesional de las mujeres en Euskadi dirigida a conocer la presencia de las mujeres en los puestos de responsabilidad de los distintos sectores económicos. Se trata de profundizar en el conocimiento tanto de obstáculos que se han ido salvando en los últimos años como los que aún siguen constituyendo un reto y las aportaciones de las mujeres a la cultura organizativa y los estilos emergentes de dirección y liderazgo.

Es un hecho constatado que aún siendo cada vez más numerosas las mujeres que alcanzan un elevado status profesional y nivel de responsabilidad, todavía están en gran medida invisibilizadas y poco reconocidas socialmente y en muchas ocasiones resulta difícil encontrar expertas en algunos campos de conocimiento.

Por ello uno de los resultados que se desea obtener en esta investigación es la identificación del colectivo de mujeres profesionales con perfil senior, entendiendo por tales mujeres con más de cinco años de experiencia laboral en profesiones liberales, en puestos de responsabilidad de trayectoria consolidada y/o que tengan un puesto directivo, con el fin de que sean visibilizadas y de poder contar con su experiencia profesional cuando así se requiera.

Por ese motivo solicitamos de Vds. su colaboración, con el fin de establecer el procedimiento más adecuado para entablar comunicación directa con aquellas profesionales inscritas en ese Colegio Oficial. Con el ánimo de no vulnerar la normativa existente sobre protección de datos, estimamos que la fórmula más adecuada sería que nos cedieran un listado de direcciones de correo electrónico de mujeres que respondan a este perfil, o en su defecto, un listado general de correos electrónicos de mujeres asociadas.

La información requerida se utilizaría para invitar al mencionado colectivo a formar parte de un directorio de mujeres expertas de Euskadi, y solicitar su autorización para que –únicamente con respecto a los datos que ellas autoricen y en el caso en que así lo hagan- el citado directorio pueda ser público.

Con este fin, en breve, una persona en nombre de Emakunde se pondrá en contacto con ustedes invitando a participar en el proyecto.

Agradecemos su colaboración y esperamos que el estudio sea de su interés y del colectivo al que va dirigido. Les saluda muy atentamente

Vitoria-Gasteiz, 3 de Noviembre de 2010.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

María SILVESTRE CABRERA
DIRECTORA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
IRTEERA
Zka 1141
Eguna 10-11-3

Manuel Iradier, 36 Tel. 945 016 702/3 – Fax 945 016 720 – E-mail: emakunde@ej-gv.es – 01005 Vitoria-Gasteiz